


ERAIKUNTZAKO KOSTUEN INDIZEA (EKI), 2010eko OTSAILA

Euskal AEko eraikuntzako kostuak %0,2 igo ziren 2010eko otsailean aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2010eko otsaila, 2009koarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuek %0,6ko gehikuntza izan dute.

2010eko otsailean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,2 igo zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %0,6 igo zen, EUSTATen datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2010



(*) Gehikuntza urtarilako urte artekoa da
Iturria: EUSTAT.

2010eko otsailean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,2 igo dira.

Otsailean Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek goranzko bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzaren atalean %0,2ko igoera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %0,4. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran badira zenbait ezberdintasun: Etxegintzako lehengaien kostuak %0,4 jaitsi ziren; Obra zibilekoak, berriz, %3,0 igo.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean Petrolio-fintzea (%29,6) nabarmentzen da. Ondoko sektoreetan ere igo dira prezioak: Material elektrikoa (%2,0), Kautxu eta plastikoa (%1,2), eta Ez-metalezko industria (%0,9). Urte artean (2009ko otsailetik aurtengora) ondokoek izan dituzte prezio-murrizketak: Metalurgia (%-6,0), Energia elektrikoa eta gasa (%-5,9), Zurgintza (%-4,5), eta Metalezko gaiak (%-2,5), besteren artean.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA. 2010EKO OTSAILA

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100 Oinarria	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	117,9	0,2	0,6	1,5
ERAIKINAK	117,8	0,1	0,1	1,4
OBRA ZIBILA	118,3	0,3	2,7	2,0
LEHENGAIEN KOSTUA	116,9	0,2	0,3	1,4
ERAIKINAK	116,8	0,2	-0,4	1,2
OBRA ZIBILA	117,0	0,4	3,0	2,0
LAN-ESKUAREN KOSTUA	121,7	0,0	2,0	2,0

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

[Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko Prentsa-oharrak](#)

[Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko Datu-bankua](#)